



BILBON ESKOLATIK ANTZERKIRA 2023

Bilboko haurrentzako programazio eszenikoa
Programación escénica para niños y niñas de Bilbao

MITUSU
HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA
PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOSIAS Y JÓVENES

B
Bilbao

Material Pedagogikoa
ZEIN DA NIRE IZENA...?


Dossier pedagogikoa

Zein da nire

izena...?

Dantza garaikideko ikuskizuna
famílientzat, 2 urtetik aurrerako
haurrak

Omar Meza eta Rosa Díazek
zuzendua



Gida didaktikoa

Izenburua: Zein da nire izena...?

Konpainia: Da.Te Danza

Hartzaileak: Haur Hezkuntzako bigarren zikloa

Generoa: Dantza

Arloak, sailak edo gaiak: Diziplinar-tekoa:

- Lengoiak, komunikazioa eta adierazpena.
- Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala.
- Ingurunea ezagutzea.



Sinopsia

Izen jakinarekin, leku jakinean eta familia eta ingurune jakinean etortzen gara mundura. Guk ez ditugu horiek aukeratu, gure hasierako eskuizkribua dira, eta, hortik eta hartzen ditugun erabakietatik abiatuta, gure bizitzaren norabidea zehaztuko da.

Mugimenduari lotutako lengoiak, argiarekin eta musikarekin batera, giro ezagun eta dibertigarrian murgiltzen ditu ikusle txikiak, eta haien arreta bereganatzen du, azaleko efektuetara jo beharrik gabe. Objektu bakoitzaren erabilera eta forma ikusten ditugun oso desberdinak izan daitezke, dena eta denok izan gaitezke imajinatzen dugun hori, puxika bat, besaulki bat, zu... Istorio honetan dena da jolasa, zure izena bilatzea oso entretenigarria izango da, jolas zaitez begiratzen, jolas zaitez begiratu. Hitzak izango dira dantzaren bidez kontatzen den istorio honen haria. Azkenean, ez du axola zer izen duzun, zurekin jolastu besterik ez dute nahi.

Justifikazioa

Aurreko ekoizpenetan bezala, Da.Te Danzak ikerketa egiteko asmoa du, galdera irekietatik abiatuta. Oraingo honetan, zein da nire izena? da galdera, eta horrek beste batzuetara garamatza: hori da edukí nahi dudán izena?, edo, izenari lotutako zein beste gauzak balío izan didate, edo zeinetatik askatu naiz,

hazi ahala? Obrari hari nagusia ematen dioten testuak eta dramaturgiak nortasunaren bilaketa planteatzen dute, besteak beste. Istorioa hazi egiten da, baita ikuskizunaren erritmoa ere, dantzaren bidezko hitzik gabeko lengoia eta tarteka azaleratzen diren hitzak erabiliz, egoerak lotzeko eta ikuskizunaren une jakinei bultzada emateko.

Ikuskizunak aintzat hartzen ditu bere hartzaileak, haurrak. Hala ere, haren edertasunagatik eta poesiagatik, edozein ikuslerentzat da interesgarria. Kontakizunak interesa pizten du etengabe, istorio hau energiaz betetzen duten une hunkigarriak, eta, beste batzuetan, dibertigarriak ziprztinduta. Hezkuntzaren aldetik duen balioetik, nortasunaren azterketa eta baieztapena nabarmentzen ditugu, baita besteenganako sentimendu positiboak eta adiskidetasunaren balioa ere. Kulturaren ikuspegitik, proposamenaren soiltasun eszenikoa nabarmentzen dugu, zeinean protagonismoa dantzarien mugimenduei eta eguneroko objektuak eraldatzeko jolasari dagoki.

Helburu didaktikoak

- Kultur ohiturak hartzea eta ikusleak trebatzea.
- Norberaren gorputzarekin eta objektuekin adierazteko aukerak aurkitzea eta erabiltzea.
- Bizí izandako esperientziaren zenbait alderdí gogoratzea eta berreraikitzea, horí adierazteko teknika artistikoak, plastikoak, irudikapenezkoak eta jolasaren bidezkoak balíatuta.

Edukiak

- Antzerkiaren esperientziaren lengoaiak eta elementuak: eszenografia, musíka, argiztapena, jantziak.
- Gorputza, adierazpíde gísa.
- Teknika plastikoak erabiltzea.
- Irudietan, objektuetan eta hitzetan oinarritutako sorkuntza.
- Ikerketa, esperimentazioa eta aurkíkuntza.

Metodología

Hauek ízango díra gure tresna metodologíkoak:

- Ikasleek ikuskízunarekíko duten jakín-mína, eta ikasgelako ikaskuntza eta jarduera sortzaíle berrietarako abiapuntu gísa erabiltzea horí.
- Jarduera kolektíboa, taldekoa eta banakakoa uztartzea, ikaskuntza indibiduala eta garapen sozíaala ahalbídetzeko.
- Jolasa jardueraren príntzípíoa ízatea, zeregína atsegíngarría ízan dadín.
- Ikaskuntza esanguratsua, haurrek dítzuten ezaqutza eta trebetasunetatík abiatzen dena, haíen ínter



JARDUERAK

Giroitze-jarduerak

Irakasleek ikuskizunaren laburpena eta hari buruzko beste informazio batzuk ikus ditzakete web orri honetan: <http://www.datedanza.es/espectaculos/cual-es-mi-nombre/>

Jarraian proposatuko diren jardueretarako oso baliagarriak izango dira helbide horretan agertzen diren informazioa eta irudiak.

- Kultur ohiturak hartzea eta ikusleak trebatzea.
- Norberaren gorputzarekin eta objektuekin adierazteko aukerak aurkitzea eta erabiltzea.
- Bizitza izandako esperientziaren zenbait alderdi gogoratzea eta berreraikitzea, hori adierazteko teknika artistikoak, plastikoak, irudikapenezkoak eta jolasaren bidezkoak baliatuta.

Horma-irudia

Gertaera azaltzen duen horma-irudi bat egitea eta erakustea, gune nabarmen eta komun batean. Horretarako, elementu nagusi gisa, ikuskizunaren kartela bera erabil daiteke, irudi iradokitzaileekin eta haurrei eta hezkuntza-komunitateari helarazi nahi diegun informazio gehigarri idatziarekin aberastuz.

Ikusizko kontakizuna

Aurreko horma-irudiaren behealdea edo erabilera komuneko beste eremu bat erabiliz, ikuskizunaren irudi inprimatu eta sekuentziatuen erakusketa bat jar daiteke, irakurketa linealekoa, eta haurrek ikusteko moduko altueran. Ikusizko kontakizun horrek honako hauetarako balioko du:

- Ikusleei zer ikusiko dugun aurreratzea eta azaltzea.
- Norbera bere behaketan gelditu ahal izatea.
- Haurren eta irakasleen arteko elkarrizketak sustatzea.
- Taldearekin jarduerak egitea.
- Aurreikuspenak iradoki eta sortzea, benetako ikuskizunaren magia erabat argitu gabe haren atalen bat aurkeztuz.

Gure gonbidapenak

Haur bakoitzarentzako gonbidapen-sarrera bat egitea, eskuko programa erabiliz, halakorik badago.

- Banakako sorkuntza-jarduera gisa, ikasgelan.
- Familiarentzako-lan gisa, ikastetxeak aurrez diseinatutako zirraborro bat erabiliz, familiaren laguntzarekin etxean pertsonalizatzeko.

Ikuskizunaren aurreko jarduerak

Nahiz eta hurrengo jarduera-proposamena, egitura dela-eta, "ikuskizunaren aurrekoak eta ondokoak" hurrenkeran ordenatuta egon, asmoa ez da inolaz ere proposamen lineal eta itxia izatea. Besterik gabe, ikasgelan egiten den lan oparorako balioko duten ekintzak eta materialak iradokitzen saiatzen da, eta ahal den heinean erabiltzeko bezain malgua eta irekia den eta ikuskizunaren aurrean edo ondoren nahitaez egon behar ez duen proposamena da.

Goazen antzokira!

Antzezpeneren aurreko egunetan, tarteka eta talde desberdinetan, antzerkira joateari buruz hitz egingo dugu. Zer aurki dezakegun eta zer arau bete behar ditugun gogoraraziko dugu, haur bakoitzaren aurretiko esperientziak baliatuz. Garrantzitsua da ikasleei alderdi batzuk azaltzea antzezpenera joan aurretik. Eduki hauek gara daitezke:

- Aretoaren eraldaketa: iluntasuna, argiak, musika.
- Antzerki-ikuskizun baten osagaiak: eszenografia, jantziak, argiztapena, musika, zuzendaritza, aktoreak, hori posible egiten duten beste profesional batzuk, etab.
 - Isilik eta oso adi egon eta gozatu beharra.
- Date Danza konpainiaren aurkezpena, haren ibilbidea, kideak, izenak, etab.
- "Zein da nire izena" lanaren aurkezpena, argumentuaren ildo eta pertsonaia nagusiak; horretarako, erabilgarriak izan daitezke konpainiaren web orritik ateratako argazkiak.

Interesgarria da, halaber, elkarrizketa hori egitea aurkituko dugunari aurrea hartzeko, gelan jolasten garen bitartean:

- Gela pixkanaka ilunduz.
- Foku edo linternaren bat piztuz.
- Musika instrumentala jarriz, girotzeko.



Mozorroen txokoa

Ikuskizunaren aurreko egunetan gure jolas-txoko sinbolikoa berrikusiko dugu, eta mozorroei protagonista handiagoa emango diegu. Familiak inplika ditzakegu jada erabiltzen ez dituzten arropa eta osagarriak eman ditzaten, eta ispilu bat jarriko dugu, behar bezain handia, haur bat baino gehiagok beren burua aldi berean ikus dezaten mozorrotzen diren bitartean.

Zergatik dut izen hau

Batzar batean, haurren iritziak jasoko ditugu, eta beren izena zergatik jarri zieten azalduko digate. Irakasleak idatziz jasoko du esaten den guztia, eta familientzat ikusgai jarriko du, gelako oholean. Adibide gisa, Rosa Sensat maisu-maistren elkarteak eta Reggio Childrenek argitaratutako "Ternura" liburuaaren pasarte bat dakarkizuegu:

"Laura naiz, Villetta haur-eskolako C taldeko neskatu bat. Sassi ere deitzen naiz eta bost urte ditut. Sassi dut izena nire aitak Sassi duelako izena, eta Sassi du izena haren aitak ere, nire aitaren aitak, eta niri eta Lucari -neba txikia da- Sassi jarri digu. Nire gurasoek niri Laura izena ematea erabaki zuten..."

Altzari-denda. Irudimenezko jolas egituratua da. Haur talde bati erosle lana egiteko eskatuko zaio, eta gainerako taldeei, berriz, altzari bihurtzeko: mahaia, aulkia, sofa-ohea, pertxa... Irakasleak saltzaile lanak egingo ditu, eta salerosketa-egoerak inprobisatuko dira. Oso jolas dibertigarria da, haurren gorputz- eta hitz-sormena pizten duena.

Izena dantzatzea

Ikasi ohí ditugun lehen letrak gure izenari lotutakoak dira. Umeei eskuekin airean edo lurrean marrazteko eskatuko diegu. Haien izenaren letrak gorputzarekin bihur daitezela eskatuko dugu. Musika jarri eta koreografia txiki bat egin dezatela eskatuko diegu. Azken batean, garrantzitsuena ez da izena ikustea, hura dantzatzea baizik. Beren koreografiak edo haien zati bat erakuts diezaiokeite elkarri. Txandaka, ikusle eta dantzari izatera jolastuko gara, lankideen lana estimatu ahal izateko eta norberaren lana besteiei erakusteko plazera izateko.



Ikuskizunaren ondoko jarduerak

“Zein da nire izena”-ren istorioa gogora ekartzea

Batzarrean obraren edukiarri buruz hitz egitea, obra gogoratuz eta haurrei hartaz galdetuz: zer gertatzen zen, zer pertsonaia eta objektu agertzen ziren, unerik dibertigarrienak edo zirraragarrienak, etab. Ideia horiek oso garrantzitsuak izango dira ondorengo jarduerak diseinatuzeko. Gehien gogoratzen duten eszena edo pertsonaia marraztea, banaka, eta gainerako ikasleei azaltzea. Marrazki horiek plastifikatzea, eta, ondoren, kontaketa-jardueretarako eta sekuentziak antolatzeko erabiltzea. Puzzle bat oroimenerako Deskargatu konpainiaren orritik ikuskizunaren argazki batzuk, tamaina handikoak, eta itsatsi kartoí lodi batean. Hainbat piezatan ebakitzea, puzzle bat balitz bezala, eta haurren adinaren araberako konplexutasuneko formekin. Gorde puzzle bakoitza gutun-azal batean. Gutun-azal horretan inprimatuta edo itsatsita egongo da barruan duen irudia, tamaina txikian.

Ispiluan zehar

Bikoteka edo hirukoteka jolastuko gara ispiluaren aurrean, aurpegiara aldatuz, besteak imitatuzko. Irakasleak, behar izanez gero, sentimenduei edo pertsonaiei buruzko ideiak emanez lagundu dezake. Pixka batean jolastu ondoren, beren burua marrazteko eskatuko zaie, haiek aukeratutako aurpegiarekin. Ondoren, marrazki guztien erakusketa egingo dugu, jardueraren azalpen batekin.

Nola ikusten nauzu

Batzarrean, egunero eskatuko diogu taldeari taldekide bat deskriba dezala, haren alderdi positiboak, fisikoak zein psikikoak, nabarmentzen saiatuz. Irakasleak idatziz jasoko ditu deskribapen horiek. Haiekin batera, haurren marrazkiak ere egin daitezke, gelako haur bakoitzaren liburu txiki bat osatzeko. Haren izenburua “Nola ikusten nauzu” izan daiteke.

Zera izango banintz...


Irudimen-jolas egituratua da, non txandaka aktore eta ikusle izatera jolastuko garen. Aktoreei proposatuko zaie objektu bihur daitezela eta denbora batez inprobisa dezatela nolakoak izango liratekeen objektu hori balira. Adibidez, bizikleta bat, aterki bat, jaka bat, garbigailuko arropa, etab. Rolak aldatuz joango dira, denek parte hartu arte eta denak ikusle izan arte.

Buztinezko irudia

Bikoteka edo hirukoteka lan egin dezakegu. Jolas honetan, lurtean etzanda dagoen lagun baten gorputzarekin jolasten da, buztin zati bat dela irudikatuz. Lehenik eta behin oratu egingo dugu, biguntzeko, eta pixkanaka giza irudi bat eraikiko dugu, artistek erabakitzen dutenean bizia hartuko duena.

Ebaluazioa

- Ikuskizuna egokia al da proposatutako hezkuntza-mailarako, gaiari, erritmoari eta ekintzari dagokienez?
 - Nahikoa kalitate al du alderdi estetikoéi, artistikoéi eta antzerki-lengoaieí dagokienez?
 - Gustatu zaie ikasleei, eta esperientzia atsegín gisa gogoratzen dute?
 - Erabilgarria izan da gida didaktikoa?
-



honako hauek lankidetzan ekoiztua:



Agencia Andaluza de Instituciones Culturales
CONSEJERÍA DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE




Dantza garaikideko konpainia



Hauen laguntzaz:



Hauekin elkartutako konpainia:



Jarrai lezaguzu herria.

